



Gorka Azkarate

Aizkorriko erro

■ Cuesta arriba correr es muy difícil; basta caminar

NEGU gogorra izan da aurtengoa, baina gogortasun horrek eskaini dizu gozamenerako tarterik. Etxeko leihotik Aizkorriko gailurreriari begiradaxo bat bota ohi diozu goizero, eta aurten maiz ikusi duzu, Orioko kantari hark atzo goizean Bizkaia maitea ikusi zuen bezala, soineko zuriz jantzia. Aizkorri zure mendia dela entzun izan dizut, bertan eroso sentitzen zarela, diren baldintzak direla. Urbiako fonda eta Arbelarko txabolak elurrak irentsirik ere ikusi dituzu aurten, eta gogotik estutu behar izan duzu zeure burua igande bat baino gehiagotan, belaunetik goragoko geruza zuria pauso geldo baina indartsuez zulaturik, Aizkorriko maldak gaingitu eta elur basamortuan gora ermitatxora heltzeko ahaleginean.

■ AIZKORRI NEGUAN

Baina horrek guztiak Aizkorri gehiago maitatzen irakatsi dizu; maitatzen eta errespetatzen. Eta errespetu hori galtzeko inolako asmorik gabe, neguko arratsalde euritsu batean mendia sakratu honen gailur zein mazeletan duela hiru urtetik hona ospatzen den festa entzutetsuan parte hartzeko erabakia hartu duzu. Zegama-Aizkorri mendia maratoian. Ez mendian korrika egitea biziki atsegin duzulako, ezta zeure burua lehertzeraino estutu nahi duzulako ere. Erronkazalea zarelako baizik, eta helburuak jarri eta lortzeak zeharo betetzen zaituelako. Eta, nola ez, froga Aizkorri eta ez beste inon ospatzen delako. Zure Aizkorri.

Mendian ibilaldi luzeak egindakoa zara, baina susmoa duzu hau ezberdina izango dela, eta prestaketa berezia egitea ezinbestekotzat jo duzu froga amaitzeko nolabaiteko bermea izateko. Gorpu-

tza ondo prestatuagatik, badakizu sufritu ere egingo duzula, beraz, erokeria litzateke itsu-itsuan, aurrez inolako lanik egin gabe, Zegamako irteeran agertzea.

Elurrak atsedean pixka bat eman du martxoan erdialdera heltzear dela, nahiz eta Aizkorri oraindik zuri-zuri egon. Eguzkirik ez da gehiegi ageri, eta gauak azkar kentzen dio lekua egunari. Egunero ohitura bilakatu duzu, ordea, lanetik itzuli eta izerdi pixka bat isurtzea. Farolen argi lerro hitsak zehazten dizu udaberrian aitona-amonen paradisu den herriko bidegorria nondik nora doan, eta bertan aritzen zara korrika gora eta behera. Ordubeteko saioa helburu, 45 minutuko ekinaldia lorpen, ordu erdia igarotzerako zeharo nazkaturik. Baina irentsi beharreko platera da, neguan metaturiko herdoila garbitu eta zangoak koipezten joateko. Asteburuetan aisialdirako denbora gehiago duzu agendan, eta saio luzeagoak egiten saiatzen zara, tarteka etxe ondoko mendietara jauzi eginez, Irimo, Samiño, Izazpe... Izazpeko igoera bilakatu da, konturatu gabe, zure dohaietara hobekien egokitzen dena, eta bidegorrira ez bada, bertara joaten zara aldapa landu nahi duzun gehienetan. Aizkorriko maratoia bukatzea lortzen baduzu, Izazpeko aldapari eskerrak ematera joatea ez ahazteko promesa egin duzu zeurekiko, bertako gurutzera bidean kopetatik behera izerdi tantoak ihes egin dizun arratsalde batean.

■ MENDIZALE ETA KORRIKALARI

Apirileko astelehen euritsu batean, Zegamara hurbildu zara goizean goiz lanera joan baino lehen; maratoian izena emateko aukera seguru bakarra omen da udaletxe atariko lerroan txanda

nka

FOTO SANTIAGO YANIZ ARAMENDIA



FOTO SANTIAGO YANIZ ARAMENDIA

■ La vieja calzada de San Adrian también sirve para correr

itxarotea. Bost lagun daude zazpi terdiak aldean bertaratu zarenerako. Udaletxea zabaldu dutenean, bost dozena laguneko tropela izena emateko zain. Sinestezina. Pare bat ordutan bete da zerrenda, nahiz eta bertako telefonoak isildu gabe jarraitu duen aste osoan zehar. Eta zu barruan zaude, lasterketan parte hartzeko aukera duen zortedunetako bat bezala ikusi duzu lehenengoz zeure burua. Eta horrek aste honetako bidegorriko itzuliak jasangarriago bilakatu ditu.

Aizkorrikoa mendi lasterketen egutegiko froga esanguratsuen izanagatik, ez da bakarra; egoki ikusi duzu zita garrantzitsuen heldu artean bestelako frogetan parte hartzea, nola molda zaitzkeen behatzeko. Aloñako igoeran parte hartu duzu maiatzean sartu berri-

tan, bezperan kirol dendan propio erositako korrikalari jantzi dotorea soinean duzula. Korrikalari bihurturiko mendizalea, horixe zara Urteagagaintetik gora jendearen oihu artean igotzen zoazela. Aloñako gurutzetik Aizkorriari keinu egin diozu, baina gaur ez da bertara igotzea tokatzen. Laster arte, pentsatu duzu. Jaitsieran izterretan sentitu dituzun zitzadak argi erakutsi dizute lehenagotik ere bazenekiena, jaitsieran baino hobeto moldatzen zarela maldan gora, alegia. Hanka arinak dituzun seinale!

Berez mendizalea zarela ahaztuko ote duzun beldurrez edo, mendi ibilaldi luzeren bat tartekatu duzu hainbeste entrenamendu eta lasterketa artean. On egingo dizu Zegamakorako. Azken finean kilometro askoko saioek ez dizute kalterik egingo, hankak gogortu baizik. Ataun aldean ibili zara maiatzeko bigarren asteburuan jentilen bideetan barrena, eta Galdakaoko Hiru Gurutzetako ibilaldia osatu duzu laugarrenean, Ganguren taldekoek txukun antolatutako ibilbide luzea indartsu burutuz. Asteazken zehar, udaberriko eguzki printzekin batera, aiton-amonei paso eman diezu bidegorrian, eta dagoeneko lzapze aldera soilik joaten zara, aldaparik gabeko korrikaldiak saihestuz. Bihotz taupadak neurtzen ikasi duzu eta zenbaitetan goiko langa igarotzen ari zarela isladatzen du erlojuak, nahiz eta langa igarotze hauek eguneko korrikaldiaren gogortasunak berak ala egun handia hurbiltzen doala somatzeak sorrarazten dizkizun oso argi izan ez.

Hainbeste itxarondako egun handia heldu da azkenik. Goiz jo du iratzargailuak, ohetik garaiz jaikitzea funtsezkoa baita aurretik daukazanari baldintza onenetan aurre egiteko. Sekulako poza hartu duzu begiak ireki eta sakon lo egin duzula konturatu zarene-

an. Zure gorputzak benetako atsedena hartu du eta alde horretatik ez da aitzakiarik izango berari duen onena eskatzeko. Begiradak leihora egin dizu ihes, Aizkorriari eguneko lehen agurra luzatu asmoz, baina lainoak ez dizu gailurreria behatzen uzten. Eguraldia izan liteke, izatekotan, eguneko etsai handiena.

Inoiz ez bezala gosaldtu duzu: oparo. Egun arruntetan lanera joan aurretik hartu ohi duzun kafesneari laranja zukua, urdaiazpikoa, ogi errea, gurina, txokolata eta abar gehitu diozu, gorputza lasterketan zehar xahutzeko erregaiz horniturik. Urduri, poltsa prestatu eta kotxez Zegamarako bidean jarri zara. Irratia piztu duzu. Goizeko ordu horietan musika besterik ez dago eta, egia esan, ez duzu beste ezer entzuteko gogorik. Konturatu orduko Zegaman zaude, aparkatzeko toki egoki baten bila. Kotxea kiroldegi parean uzteak lasterketa amaieran bere abantailak izan ditzakeela pentsatu duzu, baita hala egin ere. Marka da, ordea, lasterketa amaieran egingo duzuna burutik pasatze hutsa, lasterketa bera oraindik hasi ez denean. Ez da txarra, barruan zerbaitek lasterketa amaitzeko gai izango zarela oihukatuko dizu, antza...

■ IRTEERA

Irteera eman aurreko minutuetan urduritasuna nabari da korrikalarien begiradetan. Baita zurean ere. Prestaketan hilabete gogorak igaro eta gero eta erabakiorra hain hurbil zateke ez da nolanhikoa. Ordenik gabeko luzapenak eta metro gutxi irauten duten



FOTO SANTIAGO YANIZ ARAMENDIA

■ Ambiente y ánimo populares, los mejores ingredientes para la salsa de la prueba



■ La mayor dureza se produce siempre ascendiendo

korrikalditxoak beso mugimendu eta saltotxo urduriekin nahasten dituzu, zeure buruari egiten ari zarenak zerbaitetarako balio deza-keela sinestarazi nahian. Kaiola moduko batean sartu zaituztete behin sinadura kontrola igarota eta guztia prest dago lasterketa hasteko. Gauza asko ari dira zure buruan biraka eta alferrik saiatu zara burutapen horiek guztiak baztertzen.

Herriari bueltatxoa eman ostean, berehala hartzen du ibilbideak goranzko joera; bereziki gogorra da lehenengo aldapa eta ez zaitu lotsatu oinez igotzeak. Hobe indarrak gordetzea, izango da gero ere korrikarako tarterik! Jendea oso indartsu hasi da, baina ez du erritmo biziak zugar eraginik izan. Zure lasterketa egitera etorri zara Zegamara, erronka bakarria zeure buruarekin eta Aizkorriekin baituzu, ez beste inorekin.

Basoan ordeka uneaz baliatuz korrika arinean zoazela, Otsaurte- tik heldu zaizu eguneko lehen jende burrunda hotsa; hunkitu egin zaitu gertu somatu duzun zalapartak, eta erritmoa azkartuz heldu zara bertara. Ezagun ugari dago lasterketa jarraitzen, herritar eta lagun asko eta Otsaurten horietako batzuk identifikatzeko gai izan zara. Jendearen oihuek sekulako indarra eman dizute, eta une batean beldur izan zara gehiegi harrotu eta erritmoa neurrigabe bizitu ote duzun. Berrito horrelakorik ez egitea agindu diozu zeure buruari.

■ AUPA GORKA

Ederra da Ultzama ingurunea eta are ederragoa Atabarrateraino-ko eremua. Eta ederrak bezain gogorrak dira bata bestearen atzetik ibilbidean txertaturik dauden maldak. Baina maldan gora erraz moldatzen zara, eta aparteko zailtasunik gabe heldu zara Aratz oineraino eramango zaituen basoaren hasierara. Erritmo bizian zoaz eta gutxi dira aurrea hartzen dizuten korrikalariak, gehiago zuk aurreratzen dituzunak. Aratzeko azkeneko aldapa eguneko lehen estualdi serioa izan da, eta lehenengo taupada igoera nabarmena. Jendearen txalo artean igaro zara gailurretik, zangoak jaitsierarako prestatuz. Ondorengo minutuetan maldan behera joan beharko zara eta ez da komeni izterrak gehiegi zigortzea. Aratzeko gailurrean ere bada ezagunik, "hori da sasoi, Gorka, zu ere hemen?", entzun duzu, "bai, ea Zegamara heltzeko gai garen", eta behera. Gustora geratuko zinateke beraiekin berri- ketan, baina ezin duzu denborarik galdu. Bidean zoazela, mutiko bik "aupá Gorka" oihukatu dute, albora begiratu eta buruari gogotik



■ Bosques embrujados para refrescar el sudor

eragin arren, ez zara mutiko horiek nor diren gogoratzeko gai. Ez dituzu ezagutzen. Ezta beraiek zu ere, maratoiko antolakuntzak banaturiko parte hartzaileen zerrendagatik ez balitz. Horra, froga hau berezi bilakatzen duen beste ñabardura

bat: partaideen zerrendak korrikalari eta ikusleen arteko lotura dakar berekin, ez baita berdina "aupá" hutsa edo "aupá Gorka" bete eta indartsua entzutea. Zorionsu sentitu zara San Adriango galtzadara heltzen ari zarela ohartu zaren unean.

Kontu handiz igaro duzu mendeen joanak leunduriko harriek osatzen duten galtzada ederra, eta Aizkorriko mendilerroaren erraiak zeharkatu dituzu San Adriango koba atzean uztearekin batera. Koba mundu ezberdin biren arteko muga dela iruditu zaizu eta bertatik igaro diren mendizaleen belaunaldi kopurua imaginatzen saiatu zara. Ezin duzu, ordea, burua martxan jarri, Sancti Spirituko gunean indarrak berritzeko unea heldu baita. Aizkorriko malda gogorrei aurre egin aurretik, gogotik jan eta edatea komeni da.

Oiloipurdia eragin dizu Sancti Spiritun dagoen giroak; nekea somatzen hasi izanagatik, paretarik gogorrera igotzeko gauza ikusi duzu zeure burua, ikusleen oihu eta txalo artean. Aidean eraman zaituzte ordeka gunerarte, eta bizitzan lehenengoz txirrindulari batek Tourmaleten gora doanean sentitzen duen zirrarak zeharkatu zaitu goitik behera. Hegan zoaz, jende lerroak bidexka nondik doan zehazten dizun bitartean. Gogortasun berezia duen aldapa magikoan, zorionsu sentitu zara. Begirada jaso eta harkaitz eskegi batean Aizkorriko ermitatxoa ikusteko gauza izan zara; urrun dago oraindik, baina pauso arinean gerturatzen zoazela sentitu duzu.

Sancti Spiritutik Aizkorriko malda gogorra bada, gogorragoa malda geldialdirik gabe gainditzea. Baina hala egin duzu, eta Aizkorriera hurbiltzen zoazen heinean jendearen oihu eta txalo burrunda areagotuz doa. Pausoa bizkortzen saiatu zara, eta azken metroak korrika arinean gainditu dituzu. Lagun ugari dago bertan zure zain eta guztien eskuak nabaritu dituzu zure gibelean. Hankak mugitzeko indarrak ere egin gabe igotzen ari zarela iruditu zaizu, eztarriko korapiloak begiei malko bat lapurtu dien bitartean. Gailurrean jan eta edaten zaudela, poza nabaritu duzu barrenean, nekearekin nahasirik. Baina poza, nekeari gailenduz.

■ PUNTATIK PUNTARA

Arrisksutu xamarra da ondoren datorren zatia, kontu handiz ibili beharrekoa; nekeak ez dizu ematen duzun pauso bakoitza %100ean kontrolatzen uzten, eta gailurrerian irristada bat nahikoa izan liteke lasterketa uztera behartu zaitzakeen orkatila-bihurritu

FOTO KOLDO BEBASATEGI



FOTO SANTIAGO YANIZ ARAMENDIA

bat izateko. Aketegi, Aitxuri eta Irauletik Arbelarko txabola-terainoko jaitziera bortitza. Irauleko lepotxoan ura eskaini dizu zaletu batek, eta benetan eskertu duzu tragotxo, behe- rako bideari ekin aurretik. Izter- rretan sekulako zitzadak senti- tu dituzu jaitziera gogor hau amaitzerako eta egun osoan lehen aldiz zalantzan jarri duzu lasterketa amaituko duzuneko ideia. Pausoa moteltzera behartu zaitu izterretako minak, eta Oltzarainoko tartea atsegina den arren, ezin izan duzu uste bezain abiadura ari- nean igaro. Ezta Urbiako zabaldira eramango zaituen itzulerako bidea ere. Lasterke- tako une okerrenak igarotzen ari zara, nahiz eta Andraitzeko igoeran berriz ere zeure bene- tako indarra berreskuratzeko itxaropenik ez zaizun falta.

Jende ugari txalotu zaitu Urbiara heldu zarenean. Eza- gunek emandako berotasuna bezain goxoak dira ezezagun- en animo pertsonalizatuak. Keinu bakoitzak izan dezakeen energia zeureganatu eta han- ketara bideratzen saiatzen zara eta lortzen duzu, zenbaitetan bederen. Zenbat eta ozenago- ak izan zaletuen oihuak, orduan eta arinagoa da harri arteko zure hanken dantza. Andraitzeko lepora heltzen ari



FOTO SANTIAGO YANIZ ARAMENDIA

■ Las figuras extranjeras también miran a Zegama, llegan y corren bien

zara, berriz ere jende lerroa jarraituz. Zaletu batek argazki bat atara dizu. Jende artean ezaguna egin zaizu zaletu hori, gertukoa, baina ez daukazu atzera begiratu eta egiaztatzen jarduteko indar, gogo zein denborarik. Euri tantoak somatu dituzu buruan eta egu- neko enegarren taupada igoerak eragindako izerdiarekin nahastu dira kopetan behera. Harri eremua ahalik azkarren utzi nahi duzu atzean, euriak izaera sendoagoa hartu eta bertatik igarotzea arris- kutsu bilakatu baino lehen.

Andraitzeko lepoa gañiditzearekin batera, eguneko zailtasun han- dienak igaro direla sinestu nahi duzu, nahiz eta benetan horrela izan ez. Edozein kasutan, barruan geratzen zaizun indar apurra xahutzeko ordua heldu dela erabaki duzu eta eritimoa bizitu egin duzu Zega- mara bidean. Beherantz zure gabeziak agerian geratu dira zenbait lasterkarik aurrea hartu dizunean, baina denbora txukuna egiteko moduan zaude eta helmugaren gertutasunak ahultasuna arindu dizu. Orain bai, ziur esan dezakezu Zegamara helduko zarela.



FOTO SANTIAGO YANIZ ARAMENDIA

■ Los corredores vascos tienen a sus fans esperando en meta

Gorabeheratsu xamarra da, hala ere, beherako bidea; zenbait igoera laburrek gogortasuna ematen diote frogari azkeneraino, helmuga lerroa igaro artean norberak duen onena ematea eska- tzen duelarik. Mila gauza datozkizu burura Zegamara heltzen ari zaren bitartean: neguko ibilaldi bakartiak, udaberriko arratsalde euritsuak bidegorri amaigabeen, lasterketa eguna hurbildu ahala gorputzean somatzen joan zaren urduritasuna... Maldan behera kontrolik gabe doan sentipen eta bizipen eltzea zarela iruditu zaizu. Zerk ematen dizu, ordea, poza? Zergatik sentitzen zara hain zoriontsu mendian? Zergatik maite duzu Aizkorri? Zer arraio du mendi horrek berezi? Eta zer arraiok bilakatzen du berezi Zegama- Aizkorri maratonia? Hasperen egin duzu eskuin oina lokatzetan sartzea ekidin nahiak metro eta erdiko jauzia egitera bultzatu zai- tuen bitartean.

Mendi bidexka amaitu eta porlanezko bidera heltzeak asko zigortu dizkizu hankazpiak. Zegamako etxeak begiz behatzeak, ordea, pozez eta harrotasunez bete zaitu eta azkeneko kilometroaz gozatzeko prestatu zara. Lasterkari bat lagun harturik osatu duzu amaierako zatia, baina badakizu helmugara bakarrik sartuko zare- la. Lasterketa amaitzeko duzun modua da esprint egitea, ez une horretan zurekin doanaren aurretik amaitu nahi duzulako, zeure buruari azken ahalegina eskatzea gustoko duzulako baizik. Garai- pen keinu gorde eta ezkutua egin duzu helmuga lerroa zeharka- tzearekin batera, orain hilabete batzuk jarririk erroka gañiditu duzun seinale. Bozgorailutik sarien banaketa ekitaldia hastear dagoela iragarri dute, baina ordu t'erdia lehenago heldu den eta txapela jantziko duen britainiarra zu baino zoriontsuago nekez egongo dela pentsatu duzu. Inork ez dizu txapelik jantziko eta ez zara podiumera igoko, baina igo zaren lainotik jaitea kosta egin- go zaizu. Begirada jaso eta Zegamako etxe artean zirrikitu bat aur- kitzen saiatu zara. Keinu baten ondoren irribarre egin duzu Aizko- rri parez-pare izan duzunean. □

RESUMEN

EN Aizkorriko erroka podemos compartir, aunque sólo sea por un rato, las vivencias íntimas de quienes alguna vez han hecho suyo el objetivo de participar en el prestigioso maratón anual de montaña Zegama-Aizkorri. Una vez tomada la decisión, todos los pasos se convierten en difíciles retos. Desde la obtención del dorsal -hay límite en el número de participantes-, pasando por la larga y dura preparación necesaria para afrontar la carrera con un mínimo de garantías y, por último, que el día de la prueba las condiciones meteorológicas sean mínimamente aceptables... Los meses anteriores a la carrera, la actividad montañera y deportiva de quien pretenda medirse con el maratón de Aizkorri, adquiere un sentido exclusivo. El objetivo está claramente definido y cualquier otra actividad se vive como simple medio para su consecución. Y no se trata de competir con otros participantes sino, más bien, de una cuestión personal del protagonista de esta historia con su cima más querida...



FOTO SANTIAGO YANIZ ARAMENDIA

■ Árido descenso en las crestas de Aizkorri, bajo la niebla